

## HITZ BITAN

**DANIMARKA.** Moskuk «terrorismoaz» akusatua zuen Txetxeniako buruzagia

## Errusiaren estraditatzeko eskaerari muzin egin eta libre utzi du Kopenhagek Akhmed Zakaiev

Erredakzioa | DONOSTIA

Danimarkak aske utzi zuen atzo Txetxeniako presidente Aslan Maskhadoven ordezkari Akhmed Zakaiev. Zakaieven aurkako frogatik aski ez zegoela argudiatuta, Kopenhageko gobernua hura askatzera deliberatu zen, Moskuk Errusiara estradita zezan eskatu arren. Kremlinek «terrorismoaz» akusatua zuen Zakaiev, eta hura askatzeko erabakia politikoa izan dela iritzi zion atzo.

43 urteko ordezkari txetxeniarra urriaren 30ean atxilotu zuten, Kopenhagen, Errusiako agintariek hala eskatuta. Lehengo Zakaievek Txetxeniako Mundu Batzarrean parte hartu zuten, Danimarkako hiriburuan;

bilkura polemikoa berau. Danimarkako Gobernuak azaroaren 30a arteko epea eman zion Moskuri, Zakaieven aurkako frogatik osoa aurkez zezan; izan ere, Danimarkako Justizia Ministerioak argudiatu zuenez, ordu arte jasotako txostenak ez ziren aski ordezkari txetxeniarraren Moskuren eskuetan jartzeko.

«Eskura dugun materialean oinarrituta ezin dugu onartu estradizio eskaera», jakinarazi zuen Danimarkako Justizia Ministerioak. «Zakaiev askatu dugu eta Danimarka utz dezake nahi badu».

Aurreko asteko asteartean Errusiako Interfax berri agentziak adierazi zuen Moskuko fiskalek Zakaieven gaineko txosten gehiago igorri zituztela

Danimarkara, apaiz bati egini-ko galdeketa barne.

### «Erabaki politikoa», dio Moskuk

Danimarkak eta Errusiak ez dute estradizio hitzarmenik, baina Kopenhagek esana zuen Zakaiev entregatuko zuela, baldin eta haren kontrako frogatik nahiko jasotzen bazuen eta Moskuk hari heriotza zigorra ezarriko ez ziola bermatzen bazuen.

«Iduri du kasu honetan irizpide politikoa gailendu zaizkiela lege irizpideei», adierazi zuen atzo Moskuk, Kopenhagek Zakaiev aske utzi zuela jakin ondoren. Errusiaren iritziak, gerrillari txetxeniarrak zibil errusiarren kontra egini-ko erasoekin zerikusia du Zakaievek, baita Moskuko Dubrovka antzokiko bahiketarekin ere.



JENS NOERGAARD LARSEN / EPA

Akhmed Zakaiev, preso hartu aurretik.

### EKIALDE HURBILA

#### Palestinatik kanpo erasorik ez dutela egingo diote Hamasek eta Jihad Islamikoak

Israelgo interesen aurka joan zen astean Kenyako hiriburuan izan erasoekin zerikusirik ez dutela nabarmentzeko, ekintzak soilik Palestinan (Israel barne) egingo dituztela iragarri zuten atzo Hamas eta Jihad Islamikoa gerrillari talde palestinarrek.

### BURUNDI

#### Bake akordioa izenpetu dute presidentek eta talde matxino nagusiak

Bakeranzko urrats handitzat jo zuen atzo Pierre Buyoya Burundiko presidentek FDD Demokrazia Defendatzeko Indarrak taldearekin sinatu zuen bake ituna. Hiru egunen buruan menia ezarriko zela eta gerrillariak Gobernuan sartzerik izango dutela jakinarazi zuen.

### EUROPAKO BATASUNA

#### Hautagaiei Danimarkak egini-ko eskaintza errefusatu du Alemaniak

Alemaniko kantziler Gerhard Schroederrek atzera bota zuen atzo Danimarkak —EBko presidentetzan— Batasunean sartzekoak diren 10 estatuei egini-ko eskaintza. Alemania EBko funtsetan diru emailerik handiena da, baina arazo ekonomiko franko ditu.

Pentsa ezazu milaka lagun ari direla zutaz eta zure autoaz arduratzen.



Automobila Ar  
Osasuna Biz  
Bizitzalstripu  
Automobila  
Osasuna Biz  
stripuak txear  
Aurrekia Osas



Euskadiko Kutxa Taldekoa

**LAGUN ARO**  
SEGUROS - ASEGURUAK

Beti zugan pentsatzen